


1

HEZKUNTZAREN
ALDEKO
GOLA

Bigarren Hezkuntza eta Helduentzako
proposamen didaktikoa



Aurkezpena	3
Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astearen helburu orokorra	
Proposamen didaktikoaren helburu nagusiak	
Irizpide orokorrak	
Sakontzeko...	
12-14 urte (Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloa)	6
Helburuak	
1. jarduera. Gastuak planifikatzea	
2. jarduera. Guztiontzako hezkuntza eskubidea	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
14-16 urte (Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa)	9
Helburuak	
1. jarduera. Munduan, hezkuntzaren aldeko apustua egitea	
2. jarduera. Zer garapen-mota nahi dugu?	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
Helduen Hezkuntza	13
Helburuak	
1. jarduera. Hezkuntza, munduan	
2. jarduera. Hezkuntza: gizartearen erradiografia	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
Maila guztietarako jarduera	16
Helburuak	
Nola parte hartu Hezkuntzaren aldeko GOLA kanpainan?	
Eta baloiarekin zer?	
Ezagut ezazu Hezkuntzaren aldeko GOLA webgunea, eta egin bat	
Ebaluazioa	19

HEZKUNTZAREN
ALDEKO
GOLA

aurkezpena



© CME Asturias

2010eko Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astea (HAMA) jarri da abian, **Hezkuntzaren aldeko GOLA** izeneko kanpainarekin. Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak eta FIFAk sustatu dute kanpaina hori.

2010eko ekainean, Munduko Futbol Kopa jokatu da Hegoafrikan. Aukera bikaina da milioika lagunengana iristeko eta, aukera hori aprobetxatuz, gonbita luzatuko diegu eska diezaieten nazioarteko komunitateko agintariei haien agendan hezkuntzari lehentasuna emateko.

Guztiantzako Hezkuntzaren helburuak bete behar dituztela gogorarazteko urte garrantzitsua da 2010a, bost urte baino falta ez direlako herrialdeek helburu horiek betetzeko jarri zuten urtera iristeko (2015). Herrialde askotan, aurrerapen asko egin dira 2000. urteaz geroztik, besteak beste gai hauetan: Lehen Hezkuntza orokortzen (40 milioi neska-mutil gehiago joaten da orain munduan eskolara), eta neskek zein mutilek hezkuntzan sarbide berdintsua izaten (Bangladeshen, esaterako, mutil beste neska dago Lehen Hezkuntzan).

Dena den, gaur egungo joerek bere horretan jarraitzen badute, arrisku handia dago 2015erako ezarritako helburuak ez betetzeko. Munduan, 75 milioi neska-mutil dago eskolatu gabe (horietatik % 55 neskek dira), eta, gaur egungo egoera aldatzen ez bada, 2015ean 29 milioi neska-mutilek jarraituko dute eskolatu gabe. 774 milioi lagunek ez daki ez irakurtzen, ez idazten, eta horietatik bi heren emakumeak dira. Joerek bere horretan badiraute, 2015ean 700 milioi helduk izango dute faltan irakurtzeko eta idazteko behar den gutxieneko gaitasuna. Saharaz azpiko Afrikan, esaterako, Lehen Hezkuntzako 1.600.000 irakasle-lanpostu sortu eta kontratatu beharko lirateke bost urtean, Lehen Hezkuntzarako aukera jende guztiak izatea lortu nahi bada.

Testuinguru horretan, hezkuntzara bideratzen den Garapenerako Laguntza Ofizialak (GLO) izan duen geldialdiak arriskuan jartzen du eskolatu gabeko 70 milioi neska-mutilen etorkizuna. Krisi-garaietan, herrialde pobretuen ekonomia kolpatuetan krisiak duen eragina arindu egin dezake GLOk, eta etorkizun ekonomiko bidezkoagoa eraikitzen lagundu dezake. Baina datuak ez dira oso pozgarriak. Dena den, borondate politikoa dagoenean, herrialdeak batu egiten dira funtsak lortzeko; hala erakusten digute gobernuek finantza-sistema gaur egungo krisitik ateratzeko jarri zuten 400.000 milioi dolarrek.



Beste mehatxu bat da herrialdeek oso motel handitzen dutela hezkuntzarako inbertsio publikoa. Saharaz azpiko Afrikan, non 5-25 urte bitarteko munduko biztanleen % 15 bizi baita, munduan hezkuntzan egiten den gastuaren % 2 egin zen 2004ean. Hego eta Mendebaldeko Asian, % 7 izan zen hezkuntza-gastuaren ehunekoa, nahiz eta inguru horretan planetako biztanleen % 25 bizi den.

Horretaz gain, finantza-krisiaren eraginez, herrialdeetako aurrekontu nazionalak oso estututa daude, eta horrek eragin zuzena izango du hezkuntza-gastuan, hau da, irakasleen kontratazioan, azpiegituretan, hezkuntza-materialetan eta abar. Horri gehitzen badiogu herrialde pobretuetako familiek geroz eta pobrezia-egoera handiagoa dutela, ondoriozta daiteke hezkuntza-eskaria txikitu egingo dela, neska-mutil asko eskolatik erretiratuko dituztelako etxeko ekonomiari laguntzeko.

Egoera horretan, Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astea eta **Hezkuntzaren aldeko GOLA** kanpainaren ekintza guztiak aukera ezin hobea dira mundu osoko milioika lagunek agintari politikoei 2000an sinatutako konpromisoak bete ditzaten eskatzeko, eta gehiago atzeratu gabe helburuak lor daitezen behar beste baliabide bidera dezaten eskatzeko; izan ere, hori egiten ez badute, milioika lagunek hezkuntzarako eskubiderik izan gabe jarraituko du.

Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Asteak (HAMA) egoera bidegabeei aurre egiteko herritarren konpromiso aktiboa eta erantzukizun-zentzua sustatu nahi du haur, gazte eta helduengan, errealitate hori aldatzeko guztiok egin baitezakegu eta egin behar baitugu zerbait. Hezkuntzaren bidez bidegabekerien ondorioak (pobrezia, klima-aldaketa, hezkuntzarako aukera...) eta, bereziki, horien kausak azaldu behar dira.

LOEren esparruan, hiritartasun-eskumenak aukera ematen digu autoestimua, duintasuna, askatasuna eta erantzukizuna duten pertsonak garatzen laguntzeko. Horretaz gain, gizarte-kohesioari ere nabarmen laguntzen dio, eta tolerantzia, errespetua eta beste balio batzuk sustatzen ditu.

Helburu horrekin, demokrazia-laboretegi gisa ikusi behar da eskola, gizartearen pentsamendu kritikoa, giza eskubideenganako errespetua eta parte-hartze aktiboa sustatuko dituen laboretegi gisa. Azken finean, hiritartasun globala, tokiko nortasunarekin bateragarria, eraikiko duen eskola bat behar da, non guztiok izango dugun gure lekua.

Aurten hezkuntzaren aldarrikapena futbol-munduarekin lotzeak aukera ematen digu kirol horrek, eta beste batzuek, sustatzen dituzten balioak (talde-lana, adiskidetasuna, lana, hobetzea...) aprobetxatu eta ikasleekin lantzeko, proposamen didaktikoetako jardueren bidez. Horrez gain, aukera dugu beste eremu batzuk aprobetxatzeko —hala nola heziketa fisikoko eskolak edo ikastetxeko talde-entrenamenduak— hezkuntza-eskubidea eta bestelako gaiak lantzeko.

Hezkuntzaren aldeko GOLA izeneko ekintza Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Asteak proposatzen du, gizarte zibil guztia —ikasleak, irakasleak, klase politikoa eta beste zenbait eragile— mobilizatzeko eta Guztiontzako Hezkuntza lortzea ahalbidetzen eta zailtzen duten alderdiei buruz hausnartzeko.



Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astearen helburu orokorra

Klase politikoa eta iritzi publikoa hezkuntzak duen garrantziaz sentsibilizatzea, eta guztiontzako hezkuntza iraunkorraren eskubidea bete dadin premia jardun beharraz sentsibilizatzea.



Proposamen didaktikoaren helburu nagusiak

- Ezinbesteko inbertsiorik egin ez delako eta borondate politikorik ez dagoelako hezkuntza-eskubideaz baliatu ezin diren milioika lagunek bizi duten bazterketa-egoera ezagutzea.
- Bizitzan zeharko hezkuntza eskubide unibertsal eta funtsezko gisa balioestea, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasota dagoen moduan.
- Etengabeko hezkuntzak garapen pertsonalerako eta komunitariorako funtsezko elementu gisa duen garrantzia ulertzea.
- Herritar aktibo garen aldetik, bidegabeko egoeren aurrean dugun erantzukizuna onartzea, eta, bidegabekeria horiek aldatzeko edo errealitatea aldatzeko, guztiok egin dezakegula zerbait ulertzea.



Irizpide orokorrak

- Proposatutako jarduerak zenbait adin-taldetarako pentsatu dira, baina egokitu egin daitezke beste maila batzuetako ikasleekin ere erabiltzeko.
- Bideratzaileen esku uzten dugu jarduera bakoitzean zenbat denbora erabili erabakitzea, taldearen ezaugarri, dagoen denbora eta abarren arabera, bai eta jarduerak otsailetik apirilera zein egunetan egingo dituzten erabakitzea ere. Otsailean jasoko dituzte proposamen didaktikoak, eta apirilean egingo dugu HAMA.
- Ziklo bakoitzean, "hausnarketa-jarduera" eta "ekintza-jarduera" bana proposatu ditugu. Hezkuntza fisikoko eskoletan, atsedendaldietan, eskolaz kanpoko jardueretan, kirol-entrenamenduetan eta abar egin daitezke ekintzak, bai eta hezkuntza ez-arautuko esparruetan ere.
- "Irakasle" terminoa hezitzaileak, bideratzaileak eta abar aipatzeko erabili dugu, bai esparru arautukoak, bai ez arautukoak.



Sakontzeko...

- Proposamen honetan, gaia lantzeko jarduera simple batzuk azalduko ditugu. Dena dela, hezkuntza-eskubidea gai zaila da, beste gai askorekin erlazionaturik baitago.
- Zure ikasleekin hezkuntza-eskubideari buruzko gaia sakonago landu nahi baduzu, hemen dituzu zenbait baliabide, jarduerak eta materialak bilatzeko:
- Web-orrialdean beste urte batzuetako HAMA asteetako proposamen didaktikoak aurkituko dituzu: Gazteak eta helduak alfabetatzea (2009), Hezkuntza eta bazterketa (2008), Hezkuntza-eskubidea (2007), Hezitzaileak (2006), Hezkuntza eta pobrezia (2005).
- Espainiako GGKEren Koordinadoraren baliabide-gidan, sare horretako erakundeek proposatutako hainbat material eta esperientzia aurkituko dituzu.
- HAMAREN kide diren erakundeek proposamenak ere ezagut ditzakezu.

Helburuak

- Ikasleek uler dezatela zer garrantzitsua den Estatuak hezkuntzaren eta garapen indibidual eta kolektiboaren artean dagoen lotura aintzat hartzea eta komunitateen ongizaterako behar diren funtsak ematea.
- Talde-lanak emaitza ona izan dezan banakoak talde-lanean hartzen duen konpromisoaren balioa sustatzea.

1. jarduera: **Gastuak planifikatzea**

Hezitzaileak hezkuntzari buruzko prentsa-berri bat, argazki bat eta/edo adibide bat hartu, eta Espainia eta munduko hezkuntza-errealitateari buruz hitz egiteko proposatuko dio taldeari: antzekotasunak, diferentziak eta desberdintasunak.

Adibide bat:



Ondoren, ikasleek elkarrizketan sortu diren kontzeptuak baieztatzeko edo zuzentzeko datuak bilduko dituzte, eta munduan hezkuntzak duen egoerari buruzko ondorioak aterako dituzte.

Datuak bilatzeko, ikasgelan ondorengo web-orrialdeak kontsultatzeko aukera emango die hezitzaileak ikasleei:

- Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina: www.cme-espana.org
- UNESCO: www.unesco.org/es/education/worldwidei.

Hezitzaileak, ideia-jasaren bidez, gaur egungo egoera aldatzeko eta munduko haur guztiak kalitatezko hezkuntza izan dezaten bermatzeko gobernuek zer egin beharko luketen zerrendatu dezaten eskatuko die ikasleei. Erantzunak hauek izan daitezke: *ikastetxe gehiago eraikitzea, irakasle gehiago kontratatzea*.

Estatu baten eta familia baten arteko paralelotasuna egingo dugu, eta ikusiko dugu, bai kasu batean bai bestean, beharrezkoa dela aurrekontu bat egitea aurreikuspenak eta gastu-plana egiteko.

Guztion artean egingo dugu aurrekontua. Etxe batean behar diren gauzen zerrenda egingo dugu, gastu-plan batean sartu behar direnena: jakiak, ura, elektrizitatea, eskola-uniformeak, arropa, liburuak, garraioa eta abar. Nabarmenduko dugu familia guztiak ez dutela gauza berberetan berdin gastatzen: batzuek diru gehiago bideratuko dute jakietara, beste batzuek, aisialdira, eta abar.

Hezitzaileak azalduko du gobernuek ere aurrekontuak egiten dituztela, eta hezkuntza ere aurrekontu horren parte dela. Munduko pertsona guztiak eskolara joateko aukera izan dezaten, beharrezkoa da gobernuek:

- Aurrekontu nazionalaren % 20 gutxienez hezkuntzan inbertitzea.
- Ikasleek matrikula ordaindu beharrik ez duten eskola publikoak izatea.
- Ikasleak motibatzeke eta haiei irakasteko gai izan daitezzen hezitzaileak prestatzea, eta ikasgelan 40 ikasle baino gehiago ez izatea.
- Herrialde aberatsenetako agintariek orain bideratzen duten baino diru gehiago inbertitzea hezkuntzarako nazioarte-lankidetzan. Nazio Batuen arabera, herrialde aberatsek 16 mila milioi dolar inbertitu beharko lituzkete urtero.
- 2015erako guztiontzako hezkuntza bermatzea, 2000. urtean Dakarren (Senegal) sinatu ziren konpromisoak bete daitezzen.

Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu, eta bakoitzak aurrekontu bat egingo du, bi egoera hauen arabera:

- a. Aurrekontuaren % 20 edo gehiago hezkuntzara bideratzen duen herrialdea.
- b. Hezkuntzara aurrekontuaren % 20 baino gutxiago bideratzen duen herrialdea.

Talde bakoitzak testu bat egingo du nahi duen hizkuntza-formatuan (txostena, prentsako berria, ipuina eta abar), aurrekontu bata eta besteak herrialdearen garapenerako zer ondorio dakartzan adierazteko.

Amaierako ondorioa ere aterako dute: hurrengo urteetan hezkuntzan egingo den inbertsioak erabakiko du munduko haur guztiek eskolara joateko eta kalitatezko heziketa jasotzeko aukerarik baduten ala ez.

2. jarduera: **Guztiontzako hezkuntza-eskubidea**

Egoera hau proposatuko zaie:

Eskola bateko ikasleak gara eta, eskolari esker, aukera daukagu pertsona gisa eta gure komunitateko kide gisa garatzeko behar dugun hezkuntza izateko. Baina munduko egoerak, ekonomiaren bilakaerak eta gobernu batzuen kudeaketa txarrak guztiok eskolan ezin jarraitu izatea eragin du, eta, orain, gutxi batzuentzako lekua bakarrik dago. Egoera horri aurre egiteko, sei lagunek utzi beharko dute eskola.

Ikasle bakoitzari txartel bat emango diogu, ausaz; bizitza errealeko pertsonaia bat izango dute txartelean, eta pertsonaia hori antzestu beharko dute.

Taldeak zera adostu beharko du:

- Eskola nork utzi behar duten.
- Zein ordenatan utzi behar duten.
- Zergatik utzi behar duten.

Eztabaidatzen ari direnean, norbaitek arbelean edo paper batean idatziko du zer pertsonaiari eragin dion egoerak eta zergatik.

Eztabaida bukatzen denean, hezitzaileak guztiok berdina garelako azpimarratuko du, nortasun- edo osasun-ezaugarria edozein izanda ere.

Hauek dira pertsonaia-adibide batzuk (errepikatu egin daitezke ikasle guztiek bat izan dezaten):

MUTILA 12 URTE	Eskola dagoen herri berean bizi da, gurasoekin. Familia-negozioa dute.	MUTILA 11 URTE	Aita hies-gaixoa da.
NESKA 12 URTE	Eskolatik 30 km-ra bizi da, ama eta hiru anaia gazteagorekin. Hilabete bukaerara iristeko diru-arazoak dituzte.	NESKA 10 URTE	Adimen-koiziente handia du, eta hankak mugitzen uzten ez dion minusbaliotasun fisiko bat.
NESKA 11 URTE	Immigrante errusiarra.	MUTILA 11 URTE	Immigrante asiarra, enpresa-gizon ospetsu baten semea.
MUTILA 13 URTE	Ijitoa.	NESKA 12 URTE	Aldameneko herrian bizi da, eta klase ertainekoa da.
MUTILA 10 URTE	Langabezian ditu gurasoak.	NESKA 11 URTE	Immigrante marokoarra.

Orientabideak:

Hezitzaileak ikasle-taldera edo ikasleen gizarte-errealitatera egokitzen diren beste pertsonaia batzuk ere pentsa ditzake.

Garrantzitsua da eztabaida eta ondorioak parte-hartzaileen adinera eta errealitatera egokitzea, eta giza eskubideen ikuspuntutik bideratzea.

3. jarduera: Hezkuntzaren aldeko GOLLA: Ikasbide Handia

Ikusi 14 orrialdea.



Helburuak

- Hezkuntzak munduan nolako egoera duen eta herrien garapenerako duen garrantzia ezagutzea.
- Mundu globalizatuko erlazio ekonomikoak ikertzea (Iparra/Hegoa harremanak).

1. jarduera: **Munduan, hezkuntzaren aldeko apustua egitea**



© CECME

2009ko urriaren 6an abiatu zen Hezkuntzaren aldeko GOLA kanpaina. Oraingo honetan, munduan hezkuntzaren egoera hobetzeko konpromisoak onartu eta berretsi zituzten mundu osoko buruzagi politikoek. Hezkuntzako gastu publikoa handitzea da konpromiso nagusia.

Hezkuntzan egiten den gastu publikoa da herrialde batek biztanleen hezkuntzarako dituen baliabideen adierazlea, eta, horrenbestez, herrialde horrek hezkuntzari, eta, ondorioz, bere garapenari zer garrantzi ematen dion erakusten digu.

Adierazpen hori egin ondoren, eta planisferio bat hartuta, hezitzaileak ikasleei galdetuko die haien ustez munduko zer eremutan gastatzen duten gehien eta gutxien hezkuntzan.

Guztien artean, hiru koloretan markatuko dituzte eremuak planisferioan, haien ustez hezkuntzan, eta, horrenbestez, garapenean duten gastu-publikoaren arabera.

Eremuak zein diren definitzeko, guztien artean eztabaidatuko dituzte erabakia hartzeko faktoreak.

Planisferioa landu ondoren, 2008ko PNUDen (Nazio Batuen Garapenerako Programa) txosteneko taulan datozen datuak aztertuko ditugu:

Hezkuntzan egiten den gastu publikoa guztira, NPGren ehunekoan adierazia, eta gobernuak guztira egindako gastuaren ehunekoan adierazia (2005)

Saharaz azpiko Afrika	Arabiarrak Estatuak	Asia erdia	Asia ekialdea eta Ozeano Bareko herrialdeak	Hegoaldeko eta Mendebaldeko Asia	Latinoamerik a eta Karibe	Ipar Amerika eta Mendebaldeko Europa	Erdialdeko eta Ekialdeko Europa
-----------------------	---------------------	------------	---	----------------------------------	---------------------------	--------------------------------------	---------------------------------

Hezkuntzan egindako gastu publikoa, guztira, NPGren ehunekoan adierazia

5,0	4,5	3,2	4,7	3,6	5,0	5,3	4,9
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

Hezkuntzan egindako gastu publikoa, guztira, gobernu-gastu osoaren ehunekoan adierazia

17,5	25,7	18,0	15,0	14,6	13,4	12,7	12,8
------	------	------	------	------	------	------	------

Fuente: Txostenaren 4. kapitulua ikusi.

Taldeak hasieran atera dituen ondorioak eta taulako emaitzak alderatuko ditugu guztiok batera. Bat-etortzeen eta/edo ez-etortzeen balizko arrazoiak aipatuko ditugu.

Taldea zortzi taldetoxotan banatuko dugu, taulako herrialde bakoitzeko talde bat izateko. Datuak oinarri hartuta informazio gehiago bilatzeko eskatuko diogu talde bakoitzari, eta, orobat, bakoitzari dagokion eremuko hezkuntza-egoerari eta garapen-mailari buruzko aurkezpena prestatzeko.

Lortutako informazioarekin harremanetan jarri behar dute herrialde baten garapen-maila eta gastu-publikoa, eta ikusi behar dute zer lehentasun duten herrialde horretako agintarientzat pertsonen hain ezinbesteko zaizkien eremu hauek: hezkuntzak eta osasunak; bai eta eremu horiek biztanleen bizi-kalitatean zer ondorio dituzten ere.

Aurkezpenerako nahi duten laguntza-formatua hauta dezakete: esate baterako, ikus-entzunezkoa, komikia eta abar. Ikus-entzunezkoak egitera animatuko ditugu.

2. jarduera: Zer garapen-mota nahi dugu?

Laburpena: estatu bat irudikatuz biribil handi batean jarriko gara. Herritarrek beren beharrak nola aseko dituzten erabaki behar dute, dituzten funtsen arabera (paperezko bolak) gauza batzuk edo beste batzuk lehenetsita.

Beharko den denbora: 50 minutu (20 minutu jolaserako, eta 30 minutu hitz egiteko).

Materiala: klariona, egunkari-paperez egindako bolak (8 bat bola pertsonako).


Taldea: 8-25 bat lagun.

Nola egin

Lekua prestatuko dugu: lurrean biribil handi bat marraztuko dugu, guztiek jolasteko lekua izateko modukoa. Biribil horrek estatu-lurraldea irudikatuko du.

Biribilaren barruan, parte-hartzaile adina biribil marraztuko ditugu. Eremu pertsonala irudikatuko dute biribil horiek; horregatik, ez dute denek neurri berdina izan beharrik, pertsonak bakarrik bizi daitezkeelako, familiarekin edo beste.

Biribil handiaren barruan jokalaria bakoitzaren biribila inguratuz 5 bat cm-ko beste biribil txiki mordo bat marraztuko ditugu. Pertsona bakoitzak estali behar dituen oinarrizko beharrak izango dira biribil horiek. Erabiliko ditugun paperezko bola baino biribil txiki gehiago marraztu behar dira.



Bi txandatan jolasten da

Lehenengo txanda:

Parte-hartzaile bakoitza biribil baten barruan jarriko da. Ezingo da bertatik atera. Dinamizatzaileak (hezitzaileak) baliabide ekonomikoak estatu-lurraldearen barnean (biribil handia) sartzen dituenean hasiko da jolasa. Dinamizatzaileak biribileko leku jakin batean bakarrik utziko ditu bolak, beren biribiletik atera gabe gutxi batzuk eskura ditzaketen leku batean (herritar guztien eskura ez dagoen diru-pilaketa irudikatu nahi da).

Jokalaria bakoitzak bere inguruan ahalik eta zulo edo biribiltxo gehien tapatu behar ditu pilotekin. Baliabide ekonomikoak dira pilotak edo bolak, eta, norbaitek zulo batean pilota bat jartzea lortzen duen bakoitzean, oinarrizko behar pertsonal bat asetzen ariko da.

Denbora gutxi emango diegu horretarako (3 bat minutu), pilotetatik gertu daudenek ahalegin handiegirik egin gabe pilotak hartu eta inguruan dituzten zuloak betetzeko adina. (Norbaitek bolak lapurtu, bere biribiletik atera edo beste araren bat urratzen badu, ez dugu ezer esango, ebaluaziorako erabil daitekeelako, hau da, oinarrizko beharrak asetzeko behar adina ez izateak arauak urratzea ekar dezakeela hausnartzeko).

Bigarren txanda:

Berriz hasiko dugu jolasa.

Oraingo honetan, kolektiboa da helburua, hau da, guztion beharrak asetzea. Dinamizatzaileak biribil handiko eremu txiki batean utziko ditu bolak, eta bolak egoki irizitako lekura iritsarazteko estrategia antolatu beharko du taldeak. Denbora gutxi emango diegu: 3 minutu.

Estrategia hobetzeko, beste behin edo birritan ere errepika daiteke ariketa. (Ebaluaziorako balioko du; garapen-politikak balioetsi, birpentsatu eta hobetzeko beharra dagoela irudikatzeko).

Balorazioak eta ondorioak:

Zer sentsazio izan duzue lehenengo aldian? Zergatik? Eta bigarrenengo aldian? Zer aldatu da? Nola geratu dira banatuta baliabideak lehenengo aldian? Zer garapen-maila lortu duzue estatu gisa? Eta bigarrenengo aldian? Bigarren txandan, zer irizpide erabili duzue beharrak asetzeko? Zuen iritziz zer oinarrizko behar bete behar dira nahitaez? Zer beharri egin diezaiekezue uko? Zer egin behar du estatu batek giza garapen ona bermatzeko? Lehenengo txandan sortu dituzuen dinamikak zer garapen-eredutakoak direla uste duzue? Eta bigarrenengoan sortutakoak?

Baliabideak biribilean sartzen dituen eragileari buruzko hausnarketa egitea ere interesgarria da, bai eta taldeari baliabideen banaketa benetan nork egiten duen eta pertsonen artean nork banatzen dituen galdetzea. Adibideak: estatu-gobernuek, nazioarteko erakundeek (NBEk, FAOk, FMIk, EBk, Mundu Bankuak, nazioarteko lankidetzak, herrialde-emaileek).

Iturria: Bakearen Kulturaren Eskola (egokitzapena).

3. jarduera: Hezkuntzaren aldeko GOLLA: Ikasbide Handia

Ikusi 14. orrialdea.




Helburuak

- Etengabeko hezkuntzak garapen indibidual eta kolektiborako duen garrantzia balioestea.
- Borondate politikoak eta herritar aktibo izateak guztiontzako hezkuntza-eskubidea bete dadin duten garrantzia balioestea.

1. jarduera: **Hezkuntza, munduan**

Mapa ikusi eta interpretatu egingo dugu:



Iturria: ETGren arabera eskolatu gabeko umeek dakarten arazoa (2005). Ikusi UNESCOren 2008ko txostenaren 2. kapitulua. www.unesco.org/es/efareport/reports/2008-mid-term-review

- Zer informazio ematen digu?
- ETG da Eskolatzetako Tasa Garbia, hau da, lehen hezkuntzako ikastetxeetara joaten diren neska-mutilen ehunekoa. Zer eremuk dute ehuneko handiena, eta txikiena? Zergatik uste duzu dagoela bereizketa hori?
- Zer gertatzen da eskolatu gabeko umeekin? Zer herrialdetan daude gehien?
- Zer ondorio ditu gizarte bateko herritarrek eskolatu gabe egoteak?
- Zer arrazoigatik ezin dira neska-mutilak eskolatu? Uste duzu eskolatzetako tasa eta gizarte baten garapen ekonomikoa erlazionaturik daudela?
- Zure ustez gobernuek zer ekimen jarri behar dituzte abian gizartearen hezkuntza-egoera hobetzeko, eta herritarrek nola har dezakete aktiboki parte helburu hori bete dadin?

2. jarduera: Hezkuntza: gizartearen erradiografia



GUERRA

.....RRA
GUE.....
.....E...A
GU...RR.....

CARGUERO NOGUERAL REGUERA

El agua corre por la REGUERA.

El GENERAL ganó la guerra.

El carguero se acerca al muelle.

Angelina riega sus geranios.

La guerra solo genera males



Taldeak aurreko argazkiei buruz hitz egingo du, galdera hauei erantzunez:

- *Noiz atera zirela uste duzu? Zergatik?*
- *Zer errealitate erakusten dizkigute? Zer aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta kultural izan dira argazki batzuetatik besteetara?*
- *Zeinek du antz handien zure haurtzaroan bizitako errealitatearekin?*
- *Aipatu errealitate bakoitzaren alderdi positiboak eta negatiboak.*
- *Helduen hezkuntzari buruz, zer alde dago azkeneko bi irudien artean? Aipa itzazu.*
- *Zenbat lagun alfabetatuta zitezkeen orduan, eta zenbat orain?*
- *Ikusitako irudi guztietatik, zeinek uste duzu eskaintzen duela kalitatezko hezkuntza? Zer da zuretzat kalitatezko hezkuntza?*
- *Zergatik da garrantzitsua pertsona batek bizitza osoan kalitatezko hezkuntza izatea?*
- *Ikasleei beren hezkuntza-esperientziari buruzko lekukotasuna emateko proposatuko zaie.*

3. jarduera: **Hezkuntzaren aldeko GOLLA: Ikasbide Handia**

Ikusi 14. orrialdea.





IKASBIDE HANDIA

Maila guztietarako jarduera

Helburuak

- Hezkuntza-eskubideari eta 2015ean guztiontzako hezkuntza lortzeko herrialdeek hartutako konpromisoak betetzeari buruz landutakoa laburbiltzea.
- Mundu mailako mobilizazio-jardueran parte hartzea.



Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astean (HAMA) mundu osoko milioika lagun mobilizatuko da **Hezkuntzaren aldeko GOLA** goiburua dutela, agintari politikoei guztiontzako hezkuntza lortzeko 2015erako hartu zituzten konpromisoak bete ditzaten beharrezko baliabideak erabil ditzaten eskatzeko.

2010eko ekainean Hegoafrikan egingo den munduko futbol-txapelketa aukera ona izango da, milaka lagunek **Hezkuntzaren aldeko GOLA** sartzeko. 30 milioi lagun baina gehiagoren laguntza lortzea da gure helburua.

Nola parte hartu Hezkuntzaren aldeko GOLA kanpainan?

Aurten zure ikastetxea Ikasbide Handian parte hartzera gonbidatu dugu. Apirilaren 20an izango da munduko hainbat lekutan aldi berean. Ehun herrialde inguruko ikastetxeek eta kontinente guztietako hainbat futbolarik eta kirolarik hartuko dute parte milioika neska-mutilekin batera guztiontzako kalitatezko hezkuntza-eskubidearen alde. Munduko partaidetza-errekorra egin nahi da: Ikasbide Handia.

Ikasleek proposamen didaktikoan landutako guztia laburbiltzea eta ikasitakoaren gainean hausnartzea da Ikasbide Handiaren helburua. Tokiko politikariak eta kirolarekin erlaziozko pertsonaiak gonbidatuko dira bertan parte hartzera.

Ikasbide Handian bildutakoa idazteko, futbol-baloi bat erabiliko dugu.

Txantilo bat emango dizuegu; txantilo hori handitu egin dezakezue, baloia nahi bezain handi egiteko. Ikasle, ikasgela edo talde bakoitzak hau idatziko du baloian:

- Lauki laranjetan: zer alderdik lagunduko duten 2015ean guztiok hezkuntza-eskubidea lortzen.
- Lauki orlegietan: zer alderdik zailtzen duten hori lortzea.

Ikasleen adinera gehien egokitzen den teknika erabil dezakezue: marrazkiak, collageak, idazlanak eta abar. Baloia egiteko beste material batzuk ere erabil ditzakezue (oihala, feltroa, matxe-papera).

Eta baloiarekin zer?

Zenbait gauza egin ditzakezue:

- Ikastetxean egindako baloi guztiekin erakusketa antolatu.
- 2010eko HAMAn parte hartuko duten ordezkari politikoei edo kirolariei eman.
- 2010eko HAMAn erabili eta partidu bat egin, 2015ean guztion eskubidea izan dadin, hezkuntzak gainditu beharko dituen trabak eta izango dituen aukerak irudikatuz.

www.cme-espana.org orrialdean hau aurkituko duzu:

- 2010eko HAMAn zure ikastetxean jarduera gehiago egiteko ideiak.
- Errekorrean izena emateko fitxa.
- Baloia egiteko txantiloia.


Materialak lantzen, baloiak egiten edo partidua jolasten ari zaretela ateratako argazkiak ere bidal ditzakezue.

(Zuek bidalitako argazkiak materialetan eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren Espainiako webgunean erabiliko dira).

Ezagut ezazu Hezkuntzaren aldeko GOLA webgunea, eta egin bat

www.1gol.org web-orrialdean sinatzea eta zure babesa adieraztea da Gol bat hezkuntzaren alde kanpainarekin bat egiteko beste modu bat. Jarduera hori ikasleekin batera egin daiteke, kanpainaren web-orrialdean haiekin sartuz. Hala, bertan babesa adierazteaz gain, hezkuntzak pertsonen bizimodua nola aldatzen duen jakin, kanpainako berriak ezagutu edo munduko beste toki batzuetan egiten diren jardueren berri izan ahal izango baitute.

Bestetik, zapatako edo zapatilako lokarri bat eskumuturrean lotuta ere adieraziko duzu kanpaina babesten duzula.



Bigarren Hezkuntzako eta Helduen Hezkuntzako proposamen didaktikoa balioesteko galdetegia

2010eko Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astea (HAMA)

IKASTETXEAREN IZENA ETA HERRIA

.....

ZER MAILEK HARTU DUTE PARTE?

- DBHko 1. zikloa
- DBHko 2. zikloa
- Heziketa-zikloak
- Batxilergoa
- HHE
-

MAILA BAKOITZEKO ZENBAT GELEK HARTU DUTE PARTE?

.....

ESKU HARTU DUTEN HEZITZAILEEN IZENAK

.....

.....

ZER IRAKASGAITAN EDO ESKOLA-JARDUERATAN LANDU DUZUE HAMA?

.....

.....

LEHENDIK ERE PARTE HARTU DUZUE HAMAN? ZEIN URTETAN?

.....

.....

BALIOETSI 1ETIK (MAILARIK BAXUENA) 5ERA (MAILARIK HANDIENA) PROPOSATUTAKO HELBURUEN EGOKITASUNA, ETA HEZKUNTZA-MAILA BAKOITZERAKO PROPOSATUTAKO JARDUEREN EGOKITASUNA.

Bigarren Hezkuntza

Lehenengo zikloa

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Gastuak planifikatzea	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Guztiontzako hezkuntza-eskubidea	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. GOL bat hezkuntzaren alde: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

Bigarren zikloa

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Munduan, hezkuntzaren aldeko apustua egitea	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Zer garapen-mota nahi dugu?	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. GOL bat hezkuntzaren alde: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

Helduen Hezkuntza

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Hezkuntza, munduan	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Hezkuntza: gizartearen erradiografia	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. GOL bat hezkuntzaren alde: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

BALIOETSI ALDERDI HAUEK 1ETIK (MAILARIK BAXUENA) 5ERA (MAILARIK HANDIENA)

• Jasotako material-kantitatea	1	2	3	4	5
• Materialak jasotako eguna	1	2	3	4	5
• Proposamena ikastetxeko programan sartzeko aukera	1	2	3	4	5
• Hurrengo ikasturteetan HAMA lantzeko interesa	1	2	3	4	5

OHARRAK, IRADOKIZUNAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Bete galdetegia eta bidali faxez 93-412-40-36 zenbakira, edo deskargatu www.cme-espana.org webgunetik eta bidali posta elektronikoz same@cme-espana.org helbidera.



Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren Koalizioa ondokoek osatzen dute:



Estatu mailan, HAMAn ondokoek parte hartzen dute:



Laguntzaileak:

